

## Literatura →

## Irakurlearen konplize eta akuilu

Alex Gurrutxaga

Fermin Etxegoienek bigarren nobela argitaratu berri du —Euskadi Saria irabazi zuen *Autokarabana* izan zen lehena—, *Zinegotzia* izenekoa, eta bertan aktualitate politikoari errotik heldu dio. Errotik ez ezik, lehen esalditik ere bai: «Eskumako zinegotzia berandu esnatu zen Euskal Herriaren independentzia bere eskutik etorri zen egunean». Hortik aurrera, zinegotziak (Bixen izenez) pasatzen duen eguna kontatzen zaigu, goizetik gauerdia pixkanaka aurrera egin. Nobelak oso ongi eusten dio tentsioari, baina amaieran, korapiloaren askapenean hondoratu egiten da.

Trama politikoa utopikotik eta, beraz, balizko etorkizunetik asko duen arren, nobelako gai nagusiak erabat aktualak dira: erreferendua, zabor-bilketa, etxebizitzak, *Cabacas kasua*, sare sozialak eta abar. Politikaz gain, nobelaren euskari tematikoak dira familia eta herriko giroaren irudikapena, eta esango nuke askotan politikaren gaia lantzen den baino indar gehiagorekin

tratatzeko direla biak ala biak. Izan ere, pertsonaia nagusiaren karakterizazioa sendoa da, bere barne-gatazkatan oso matizatu, eta hainbat alderdi hartzen ditu kontuan; besteak beste, gaztaro-ko traumak, aitaren figura, anaiarekin duen erlazioa, bikote-harremana edota sexua. Kurioso da, gainera, nola bereizten diren pertsonaia nagusiaren baitan izatera edo rol desberdinak: Bixen zinegotzia da, baina baita harakina eta aita ere; eta hiru rol horien arteko tentsioari hasieratik amaierara ateratzen dio txispadiazleak.

Nobelaren kontamoldeak badu beste hainbat alderdi interesgarri. Esanguratsuen, behar bada, narratzaileak erabiltzen duen kontateknika da. Hirugarren pertsonan mintzo da, kanpotik bezala baina iritzirik eman gabe, pertsonaien gainetik, eta tarteka irakurleari zuzentzen zaio; hala, narratzaileak agerian uzten du istorio bat kontatuko digula. Modu horretan, irakurlea konplize bihurtzen du, eta une batean ematen du biak elkarrekin, narratzailea eta irakurlea, ari direla pertsonaiei begira. Jo-

las gustagarria da eta, horrez gain, esango nuke irakurleari dei egite horrek baduela beste helburu bat, pentsaraztearekin lotua; garbi ikusten da narratzailea «zu» bati zuzentzetik «zuek» batera pasatzen denean: «Zuek, injustiziaren aurkako borrokak kanpotik ikusten dituzuenok: egingo al zenukete zerbaite Bixenen haragian izanez gero?». Narratzaileak bilatzen duen konplizitate hau iruditzen zait liburua- ren klabeetako bat, efektibo dena irakurtzeko moduan eragiten duen neurrian.

Kontakizunaren tonua ironikoa eta kritikoa da alde batetik:



## ‘ZINEGOTZIA’

- **Egilea:** Fermin Etxegoien.
- **Argitaletxea:** Erein.

egia esan Bixen nahiko erridukulo ikusten dugu tarteka, eta umore printzarik ere ez da falta. Baina, beste alde batetik, serioa ere bada, gertaera gogorak ere bai baitira tartean. Eta tonua dela eta, esango nuke beratu dela amaieran nobelak huts egitearen arrazoiak. Apurte egiten da nobela guztian mantentzen den tonu tragikomikoa, gogorren eta patetikoaren arteko kinka hori —ongi funtzionatzen duena ordura arte; esaterako, aber-tzale moderatua Guardia Zibilarengandik ihesi ikusten dugunean—, eta hondarrea absurdo eta patetikoak soilik geratzen delako. Gainera, tramaren oinarri politikoa hain potentia izanik —independentzia alajaina—, irakurleak amaieran danbeteke bat espero duela iruditzen zait, eta neuk behintzat plov bat sumatu dut, gai nagusiari irtenbidea eman ordez ihes egiten zaiolako neurri batean.

Azkenean, *Zinegotzia* esaldi batean definitzeko eskatuko bazenit, esango nizuke ez dela nobela paregabea, baina liburu oso interesgarria dela eta merezi duela irakurtzea.



## ‘OLERKI GUZTIAK’

- **Egilea:** Friedrich Holderlin.
- **Itzultzailea:** Luis Arostegi.
- **Argitaratzailea:** Euskal Herriko Karmeldarrak.

Friedrich Holderlinen obra poetiko osoaren edizio elebiduna da liburu hau, mila orrialdekoa. Erromantizismo alemanak emandako poeta gorentzat dute adituek Holderlin. Orain artean haren hainbat poema eta *Hyperion* eleberririkoa baino ez zeuden euskaratuta



## ‘ZARAUZKO POSTALAK. 36KO GERRA’

- **Egilea:** Amagoia Gurrutxaga Uranga.
- **Argitaratzailea:** Zarauzko Udala.

«Zarautzen 36ko gerra garaian eta ondoren ezer gertatu ez zelako ustearen ustela agerian uztera» dator liburu hau, egileak hitzurrean dioenez.

«Zarautz ez zelako fronte gune izan, baina frontean bezalaxe erori zelako jendea Zarautzen erreketean eta falangisten tiroen azpian».



## ‘MARIORENAK’

- **Egilea:** Manu Gojenola.
- **Argitaletxea:** Hiria.

Mario Onaindiaren obra osoaren argitalpena atondu du hogeitaka liburutan Manu Gojenolak, Hiria argitaletxeak kaleratutako Mario Onaindiaren Biblioteka bilduman, haren obraren balioa eta haren euskaltzaleatasuna errebindikatuz. Erremate gisa, berak Onaindiari buruz idatzitako lanak bildu ditu Gojenolak *Mariorenak* liburuan.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Esnatzean, nahiz oherakoan

Poesia liburuak ez dira eguneroko argitaratzen gurean. Urteroko ale bakan batzuek osatzen dute, apurka, haur literaturako biltegia. Honako hau pasa den udazkenean argitaratu zen, Azokarako-edo, eta, halere, berria da.

Hirurogeita hamazazpi poema ditu, bi partetan banatuta: *Tximeletrak esnatzean* eta *Tximeletrak oherakoan*, baina bi multzotako ezaugarrien artean ez da etenik ageri. Bietan daude aterkiak, maitaleak eta zomorroak, aitona eta haurrak, puzkerrak, mozkorrak eta lore-

ak, surflariak, txoriak eta alfabetoa.

Poema jostalariak dira, gauzen eta gertaeren ohikotasunetik abiatutako narrazio txikiak, askotan sopsarekin bukatzen dutenak. Narratzailea ez da melertara eta ariketa konplexuetan sartzen; aitzitik efektu bisualak bilatzen ditu, azken leerroaren bueltan harrituko gaituzten ezustekoak, fisikoki gertatzen diren pasadizo barregarriak edota hunkigarriak.

Puntu honetara iritsirik, ezin aipatu gabe utzi idazle beraren *Pupuan trapua* liburu, ez egiletzagatik, baizik haren ildoari jarraitzen diolako formatuan, estiloan eta irakur-moldeetan. Bien artean nabari daiteke berri honek ez diola iraganari begiratzen, lehen baseritarrak zeuden lekuan orain hiriak daudela, baina, dena den, bietan ere animalien eta naturaren presentzia oso nabarmena da, ia absolutua.

Oro har, zortzi bat urtera arteko haurrari irakurtzeko liburu bat da eta hortik aurrerako irakurle autonomoa ondo hartzen du.

■ **IMANOL MERCERO**

## Ipuin zaharberria

Obra hau Grimm anaien ipuin baten bertsioa da, jatorrizkoan *Die Zertanzen Schuhe* izenarekin kaleratu zutena, 1812an.

Ipuinari liburu formatua eman diote, ilustrazio ugariz hornitu dute, tapa gogor barrubigunean bildu eta printzosen irudiak opari gisa erantsi.

Testua frantsesetik itzulita dago, laburra da halaberharrez —jatorrizkoa ere hala delako— eta irudien artean bokadiloetan txertatuta agertzen da. Espero bezala, narratzaile orjakile baten kontatzen digu istorioa.

Iruidiak portzelanazkoak diru-



## ‘HAMABI PRINTZESA DANTZARIAK’

- **Idazlea:** Sophie Koechlin.
- **Ilustratzailea:** Miss Clara.
- **Itzultzailea:** Uxoa Iñurrieta.
- **Argitaletxea:** Ibaizabal.

diten panpinekin eta dekoratuekin eraikita daude, XVIII. mendeko estetikarekin, collageari eta irudiaren moldaketa digitalari muzin egin gabe.

Aurretik baguenen ipuin honen itzulpen bat Genaro Gomezzen *Grimm anaien ipuinak* bilduman *Dantzan higitutako zapatak* izenarekin.

Bi bertsioen artean ez dago alde askorik, baina bai ñabardura batzuk. Espero daitekeen bezala Gomezzena bertsio fidelagoa da eta Koechlinenak aldaketaxko batzuk proposatzen dizkio jatorrizkoari. Aldaketa nabarmena da istorioa apur bat leundu dela; esaterako, han «burua moztu» zioen lekuan hemen «erbestera» dio, han «atsoa» hemen «emakume zaharra»...

Era berean, gertaeren ordena aldatu du, tentsio narratibo handiagoa bilatzearen, suposatzen da. Esan liteke gaurko gustuen arabera obra josten saiatu direla. Lehen irakurleetatik hasita edozein adin onartzen duen obra da, hori bai, lila kolorea atsegin dutenentzat. ■ **IMANOL MERCERO**



## ‘TXIMELETRAK’

- **Idazlea:** Xabier Olaso.
- **Itzultzailea:** Agurtzane Villate.
- **Argitaletxea:** Pamiela.